



PIZTIAK BIZI DIREN LEKUAN



LIBURUAREN FITXA

Sendak, M. *Piztiak bizi diren lekua*. Kalandraka, 2000- 2011

ARGUDIOA

Otso-larrua jantzi eta gaiztakeriak egiten dabil Max. Ama haserretu eta gelara bidaltzen du, afaldu gabe. Bakarrik dago gelan. Basoa sortzen da gelan, handituz doan basoa. Eta itsasoak ontzi bat ekarriko dio Maxi. Ontzia hartu eta uhinetan barrena, ia urte betez ibili ondoren, Piztiak bizi diren lekura iritsiko da. Errege izendatuko dute piztiek eta festa basatiak antolatuko dituzte. Alabaina aspertu eta maitatuko zuten leku batean egoteko gogoia sentituko du. Itzultzeko unea iritsi da. Ia urte bete uhinetan ibili ondoren etxeko gelara iritsiko da. Bertan du afaria, eta beroa dago.

IRAKURKETA

- Album ilustratua.
- Lehengo irakurketa batean testua helarazi ilustrazioak ikusten dituzten aldi berean.
- Bigarren irakurketa aldian, orrialdez orrialde Maxen emozioen azalpena eta bilakaera behatu eta horien azalpena ikasleei eskatu...
- Hirugarren saio batean, bi planoen arteko lotura nabarmendu. Plano errealean: amarekiko harremana, agintearen aurreko frustrazioa eta amorrua... Plano fantastikoan: gela, gelaren itxuraldaketa, bidaia eta munstroak; amaren agintea eta boterea bereganatzean, hazi egiten da. Festa erraldoi, zoro batean gorena jotzen du bere agintean, agintariaren bakardadea sentitu arte, maitasunaren gozoaz gogoratu arte. Amaren parekoa dela sentitu du, eta afaria usainak ekarriko du bueltan bere gelara, errealtatera alegia. Otso-larruaren mozorroa kentzeko prest dago.



PROPOSAMENAK

- Aita /ama noiz haserretu da zurekin? Zergatik?
- Itxi begiak: Noiz haserretu zara ama/aitarekin? Zergatik?
- Munstro bat aukeratu, gehien gustatzen zaizuna. Agindu iezaiozu, amak/aitak zurekin egiten duten moduan. Diktatu irakasleari zure agindua.